

DELINCUENCIA Y CRIMINALIDAD EN EL PAÍS VASCO EN LA TRANSICIÓN DE LA EDAD MEDIA A LA MODERNA

Iñaki Bazán Díaz
Eusko Jaurlaritzaren Barne Saila, Gasteiz, 1995

Beti bezala poztzen gara urtebete baino gutxi gehiagoko tesi bat argitaraturik ikusten dugunean, kasu honek gertatzen den bezalaxe. Zalantza barik, ez da eguneroko berria Barne Sailak Erdi Aroari buruzko ikerketa bat kaleratzeko hartu duen ardura. Ezin da ukatu Iñaki Bazánen tesia esanguratsua denik gaur egungo panorama historiografikoan. Horregatik, uste dut liburu honek oso ondo isladatzen dituela gaur egungo ikerkuntza historikoan gailentzen diren joera nagusienera itarotzeko batzuk. Batetik, berrikuntzak eskaintzeko gogo bizian dagoen eta hain berria ez den Mentalitateen Historiaren adibide bat ikus dezakegu. Bestetik, progresoa iluntasunetik zibilizaziora, atzerapenetik demokrazia burgesaren *perfekzio* eramatean gaituen ideia zaharkitua, baina berri modan dagoena, agertzen da.

Lan hau laburbilduz, esan daiteke, delituen eta hauen kontra jarritako zigoren ikerketaren bidez Erdi Aro eta Aro Modernoaren arteko trantsizio-urteetan gauzatutako Mentalitatearen aldaketa bilatzen dela.¹ Lau hitzetan ikerketa honen ondorio nagusia honakoa da: Feudalismoaren indarke-riaz beteriko mundutik, hiriburuen

pietatezko gizartera itzulgabeko bidaia hasi ziren burutzen euskaldunak XIV. eta, batez ere, XV. mendean. Jarraian azalduko dugunez, ikerketatik ateratako datuetatik horrelako ondorioa gainditu ezinezko amildegia zabaltzen da.

Analisisa eta ikerketaren garrantziari dagokionez, tesi hau banatzeko egiten diren sei kapituluaren artean "Tipología del delito" eta "Tipología de las penas", hau da, laugarrena eta seigarrena, azpimarratuko genituzke. Atal hauetan ikerlariaren lana eta honek sailkapen bat gauzatzeko egindako ahalegina nabaria da, ordura arte deskribapena egitera mugatzen delarik. Jarrera honen adibidea lehenengo atalean aurki daiteke. "Territorialización de la Justicia" delakoan agertzen den Hermandadeei buruzko zatian ez dugu inongo azalpenik aurkitzen. Beranduxeago egingo dugu berba adibide hau eta beste batzuen atzetik dagoen kontzeptualizatzeko beldurrari buruz.

Ezer berririk deskubritzen ez duen lehenengo atal honetan ere lanean zehar sarritan agerian geratzen den beste arazo bat aurkitzen dugu. Antza, historialari honen ustez, "Sociedad vasca" eta "Sociedad del País Vasco

1. Aipatu beharra dago Mentalitateen Historiatik hain kritikatu izan den materialismo historikoak ere oso garrantzi handia eman ziela, eta ematen diela, trantsizio-garaiei. Inflexio garai hauen ikerketa aspalditik izan da jorratua materialismo historikoaren ikuspuntutik. Feudalismoaren eta Kapitalismoaren trantsizioari dagokionez Maurice Dobb eta Paul Sweezyren arteko eztabaidak sortu zuen debate emankorrek laster 50 urte beteko du. Beraz, berrikuntzen beharra aldarrikatzen duen Mentalitateen Historiaren adibide honek ez du apurtzen hemen aipatutako tradizioarekin.

(EAE)” eta halaber “cosmovisión de los vascos” eta “cosmovisión de los habitantes de Vizcaya, Guipuzcoa y Alava” gauza bera dira. Horrela ez da ondo betetzen edozein ikerketa historikotan beharrezko diren lekua eta denboraren zehaztapena. Beraz, gaur egungo egitura politikoak, askotan, ez du balio Erdi Aroko gizartea ikertzeko, are gutxiago mentalitateari buruz idazten dugunean.

Bigarren atalean, “Instancias y oficiales de Justicia” deiturikoan, Erdi Aroko justiziaren funtzionamendua eta honetan protagonistak diren epaileak agertzen zaizkigu. Ikerlariaren errua ez den Ertaroko informazio-iturrien arazoa agerian dago atal honetan. Liburuaren amaieran agertzen diren gehigarrietan ere begibistakoa da leku batzuen eta besteen arteko desoreka. Esaterako, zenbakiei erreparatuz, Orozko bailarako kriminalitatea Bilbokoa baino garrantzitsuagoa izan zen Erdi Aroan. Arazo hauek gainditzeko lan honek informazio-iturrei buruzko atalean falta duen aipamen bat beharko luke. Halaber, bigarren atal honetan idazleak egiten duen *klase* eta *estamentu* hitz eta kontzeptuen erabilera eklektizismo terminologikoaren adibide argia dugu. Zeregin honen aurrean idazleak deskripzio- eta ikerketa-teknika berrien aipamena (prosopografia) baino ez du egiten. Bide horretatik kontzeptualizateari muzin egiten dio, gaur egungo Historiografian hain zabalduta dagoen beste jarrera bat agerian utziz.

Atal honetan ere, kulturen arteko hibridazioari buruz hitz egiten denean, ez zaio ematen hizkuntzari dagokion garrantzia. Mitxelenak aspaldi historia-

lariei leporatutako hizkuntzekiko interes eza² berriro ere agertzen zaigu gaur egungo ikerketa batean. Baze- goen euskaldunik Erdi Aroko Euskal Herrian? Guztiak elebidunak ote ziren? Hala ez balitz, euskaldun elebakarrak nola erlazionatu ziren justiziarekin? Dokumentazioak, agian, ez du informazio larregirik emango; halere ez dut uste posible denik Erdi Aroko euskaldunen kultura edo mentalitatea euren hizkuntza kontutan hartu barik aztertzea.

Hirugarren atalean tesi honen mamian sartzen gara. “Prevención del delito” izenburuarekin Erdi Aroko euskal gizartean pertsona eta taldeei egiten zitzaien zainketa edo bijilantzia azaltzen zaigu. Atzera, Erdi Aro Beranteko gizartean gauzatu zen krisialdia delituen handitzearen gakoa izan zela adierazten da. Hala ere, aipaturiko atalean badago azpimarratu beharreko zenbait puntu. Alde batetik garai honetako gauetan suertatzen ziren kaleko istiluen (“gavillas”) inguruan egindako analisiak ez du guztiz argitzen gertatutakoa. Izurrite Beltzak belaunaldien arteko tira-birak handitu zituela dioen azalpenak, harreman handiagoa dauka gaur egungo gizartearekin Erdi Arokoarekin baino. Ez dut uste gazteek eta ez hain gazteek sortutako gaueko istiluen esplikazioa zelibato egoeran datzanik soilik, gazte hauen egoera sozio-ekonomikoa ere kontutan hartu beharko baikenuke.

Iñaki Bazán Gasteizko demografiari buruz mintzatzen denean ez du kontutan hartzen demografo batek iturri desberdinen artean egin behar duen bereizketa³. Esaterako, testuan aipa-

2. «(...) no me parece injusto pensar que los historiadores, como grey y con muy señaladas excepciones (...) no se suelen preocupar gran cosa de las lenguas de las gentes que estudian», Mitxelena Elissalt, K.: “Sobre la lengua vasca en Alava durante la Edad Media” in *Vitoria en la Edad Media*, Gasteiz 1982, 299.

tzen den 1537ko erroldan Gasteizko jurisdikzioan sartutako hainbat herritako biztanleak agertzen dira, 1578koan, ordea, ez dira kontutan hartzen herritar hauek; beraz, datu biak ezin dira alderatu, eta are gutxiago, 1523an garai honetako Gasteizko populazioaren tope demografikoa jarri, beste iturririk ez badugu. Hori dela eta, datu hauek jarraituz eraikitako esplikazioak ez du balio handirik.

Talde konkretuen zaintzeari buruzko parrafoetan, harrigarria iruditzen zaigu Euskal Herria zeharkatu zuten bidaiariei emandako sinesgarritasuna. Bidaiarien informazioak beste datuekin kontrastatu beharra dugu. Komenigarria litzateke Antzin Aroko historialariek Estrabonek eta bere moduko beste geografoek idatzitako deskripzioekin egin dutena kontutan hartzea. Gaur egun badakigu informazio-emaile hauek euren garaiko kulturaren giza-semeak zirela, beraz, ezin dugu haien testu guztiak egiazat hartu. Beharrezko iruditzen zaizkigun iragazki horietan ez du erreparatu Iñaki Bazánnek.⁴ Gainera arlote-taldearen handitzea, krisia dela eta, ez da batere ondo azaltzen. Bide desberdinak aipatzen dira, baina arlote bilakatzekeo prozesua sinplegia iruditzen zaigu.

Hasieran esan dugun legez, laugarren ataletik aurrera lan honek balio handiagoa dauka. Batez ere “Tipología del delito” eta “Tipología de las penas” deituriko ataletan, historialarien lana nagusitu egiten baita, Antropologiak ordura arte izandako lehentasuna

nolabait baztertuz⁵. “Tipología del delito” izenburua duen laugarren kapituluak Erdi Aroko euskal gizartean delitutzat hartutako ekintzen sailkapen itxurosoa ematen digu idazleak. Dena den, orain arte aipatutako ikuspuntu batzuk berriz ere plazaratzen dira. Nire ustez, Erdi Aroko gizartean ematen den indarkeria puztu egiten da, XV. eta XVI. mendeko gizartea goresteko asmoz. Honekin batera, eta gizarte baten ezaugarri guztiak ezin baitira txarrak izan, Erdi Aroko euskaldunen pietatea goraiatzen da. Horrela isladatzen da liburuan zehar nonahi aurki daitekeen manikeismoa. Interpretazio honi garai horietako boteretsuen aldeko jarrera gehitzen zaio, gehiegizko biolentzia aginte publikoaren kontrol ezari leporatzen zaiolarik. Beraz, Erdi Aroko gizartean nagusi izan zen biolentzia gizabanakoen ekintzek izandako protagonismoan datza. “Estatu poliziala” behar-beharrezkoa izan zen egoera honekin amaitzeko.

Orain arteko hausnarketaz gain, esan beharra dago egundoko lana burutu duela Iñaki Bazánnek delituak, banan-banan, ikertzeko. Agian, ezkontzaz kanpoko harreman sexualei eta abadeen artean hain zabalduta ei zegoen ohaidegoari emandako esplikazioak ez du guztiz asetzen gure jakingura. Ohitura hauen garrantzia neurtzeko, guztiz beharrezkoa da Euskal Herritik kanpo gertatzen zena jakitea. Esaterako, dakigunez, XV. eta XVI. mendeetako Galiza edo Gaztelako gizarteetan antzerako ezaugarriak topa daitezke⁶. Gainera, gai hauei eta

3. Díaz de Durana historialariak, aspaldi, Arabari buruzko oso adibide ona eman zigun. Díaz de Durana, J.R.: *Alava en la Baja Edad Media*. Gasteiz 1986, 207-208.

4. Argi eta garbi geratu zen joan den urtean Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) burututako kongresu batean: *Las Estructuras sociales indígenas del Norte de la Península Ibérica*, Gasteiz 1994.

5 Ezaugarri hau ez da erabat betetzen, intzestuari edo homosexualitateari buruzko ataltxoetan nabaria denez.

beste batzuei dagokionez Euskal Herriko habitatari eta geografari emandako garrantzia, sasi-determinismo geografikoa sortuz, gehiegizkoa da erabat. Jakinaenez, sakabanatutako habitata ez da Euskal Herriko eskualde guztietan aurkitzen. Bestalde, Iñaki Bazánek aurkezten digun euskal geografia, gehienbat, kostaldeko probintzietan dagokie. Dirudienek, batzuek asmakizunen mundutik eraikitako aislazionismo geografiko eta azken finean kultural honi, gure ezaugarri on guztien zerrenda luzea leporatzen dioten bitartean, besteek atzerakoitzat hartutako guztia mundu arruntetik at bizitze honi aurpegiratzen diote. Iñaki Bazán bigarren taldeko kideen artean koka dezakegu. Hau dela eta, gaizki gauzatutako kristautze-prozesu berantiarak, XX. mendearen amaieran oraindik ere, euskaldunen ohitura berezi batzuk esplikatzen ditu. Antzaenez, Euskal Herritik kanpoko leku guztietan Kristautasuna oso ondo onartua eta ulertua izan zen lehenengo unetik. Tamalez, euskaldunok, sarritan bezala, berandurarte itxaron behar izan genuen "azterketa" hau gainditzeko.

Habitatarekin egindako zehaztu gabeko erabilera, Calahorrako gotzainen kasuan ere errepikatzen da. Horrela, Calahorrako gotzainek Bizkaiko eta Gipuzkoako Deba bailarako elizak kontrolatzeko orduan jasan zituzten oztopoak aipatzen direnean, kontuan izan behar dugu Araban ez zela gauza

bera gertatu. Hori dela eta, ezin zaio gotzainaren kontrol faltari leporatu abadeen legez kanpoko portaera.

Atal honetan ere Durangoko hereseen inguruan eztabaidagarria den analisi bat aurkitzen dugu. Ahozko literaturatik ateratako informazioan eta etsaien iritzietan, batez ere, oinarritzen dira Iñaki Bazánen ondorioak, bestalde, berriak ez direnak. Datu berririk gabe errepresio gileek edo hauen ondorengo batzuek emandako menperatutakoen ezaugarriak ezin dira, besterik gabe, egiazat onartu. Esaterako, testu batzuetan edo ahozko tradizioan agertzen den estatu-kolpearen saiakeraz eta sexuaren inguruko salaketekz baliatzea Durangoko hereseak "Izpiritu aske"-aren mugimenduekin lotzeko gehiegizkoa dirudi. Gure ustez, oso ondorio ausarta datu fidagarrien eskasia dela eta⁷.

Delitu eta zigorren tipologiari eskainitako atalen artean gaizkileen kontra hartutako neurriak zehazten dira, "Persecución de los delincuentes" deituriko bosgarren kapituluan. Delitua salatzen denetik erruduna harrapatu artean garatzen den prozesua agertzen zaigu bertan. Aipamen berezia merezi du salatariaren funtzioak Erdi Aroko justizian, hauek burutatutako lanaren bitartez areagotzen baitzen gizartearen gaineko kontrola. Deskribapenean zehar Aro Modernoko estatuaren indartze eta tokian tokiko beste

6. Beti bezala konparazioaren erabilera funtsezkoa da. Esate baterako, kontutan hartzen badugu XV. eta XVI. mendeetan Galizako elizbarrutietan eta Toledoko artzapezpikutzan egindako sinodoetatik etorritako dokumentazioa, agerian geratzen da testu hauek isladatzen dituzten egoera batzuk Erdi Aroko euskal gizartearen ere aurki daitezkeela oso erraz, horien artean ezkongetzaren aurkako portaerak. García García, A. (zuz.): *Synodicum Hispanum*, Madril 1981. Sanchez Herrero, J.: *Concilios Provinciales y Sínodos Toledanos de los siglos XIV y XV. La religiosidad cristiana del Clero y el pueblo*, La Laguna 1976.

7. Orain dela gutxi argitaratutako erlijioetasunari buruzko liburu interesgarri batean Ernesto García historialariak bere zalantzak adierazten ditu goian aipatutako interpretazioaren inguruan, Durangoko mugimendua Erreformarekin lotuz. García Fernandez, E.: "Alonso de Mella y los herejes de Durango en el siglo XV" in *Religiosidad y sociedad en el País Vasco. Siglos XIV-XV*, Bilbo 1994, 91-92.

botereen gaineko zabaltze-prozesua nagusitzen da.

Ondo burututako kapitulu honetan, berriz ere, ikuspuntu manikeista bate-tik epaitzen da batzuen eta besteen jarrera. Erdi Aro Beranteko euskaldun-ek leku sakratuei zieten begirunea ez zen oso handia, idazlearen iritziz. Gari horretako testu batzuetan agertzen den ikuspuntu eta ideiak onartuz, elizetako atarietan gauzatzen ziren herritarren batzarrei jokabide okerra deritze idazleak. Baina hala Arte historialariak nola dokumentazioa, elizako atariaren funtzio laikoari buruz mintzatu dira sarritan. Hauen ustez, X. mendetik aurrera eta beste gune batzuk sortu artean, herria edo honen "ordezkariak" elizako atarian batzen ziren, ezkila jo eta gero.

Hernandadeek burututako ekintzen aurrean egindako interpretazioa, orain arteko ildo berean sartuko genuke. Agi denez, Hernandadeen funtzioa ez da sostengatzen dituzten taldeen interesak zaintzea, normalitatea berreskuratzea edo ordena ezartzea baizik. Berriz ere, gizarte berriaren aldeko apustua argi eta garbi azaltzen da analisi honetan.

Seigarren eta azkenengo atalean historialariak Erdi Aroko Euskal Herriko gartzela eta zigorren tipologia aurkezten dizkigu. Aurreko gaiari dagokionez, idazleak orain dela urte batzuk kalera-eratutako liburu batean agertzen zen analisiaren ildotik jarraitzen du⁸, ideia nagusia Erdi Aroko gartzela ez zela delituak zigortzeko erabiltzen izanik. Datuekin batera, gaur egungo gartze-

larekin alderatzeko asmoz plazaratzen diren ideiak, boterearen diskurtso-rik mailegatuak dira erabat. Estatistika ho-tzak besterik ez ditugu begiratu behar gaur egun gartzelak ez duela bergizar-teratze funtzioa betetzen ikusteko. Bestalde, gaur egungo justizian, Erdi Arokoan bezala, Txirrita bertsolariak lapur txiki eta handiei emandako tratu desberdinari buruz kantatzen zuena, ez da batere aldatu, XX. mende amaieran espetxeak pobrez beteta daudelarik⁹.

Zigorren tipologiaren azterketa heriotz-zigorretik abiatzen da; aipatu zigor honek zituen mendeku- eta adibide-funtzioak, beste zigorretan ere agertzen dira. Zigorrez zigor historiala-riak delitu bakoitzari zegokiona azter-tzen du, eta gainera nola burutzen zi-ren, korpus tipologiko eder bat osatuz.

Hasieran salatzen genuen ikerlan eta ondorioen arteko tarte handia ondoriei emandako zatian nagusitzen da. Alde batetik aipatutako gizarte bien arteko gatazka ez da guztiz ondo isladatzen dokumentuetan, eta XV. mendeko merkatar-burgesiaren garai-penari buruzko ondorioak zehaztasun gehiago behar du. Bestalde, XV. men-dearen amaierako euskal gizarteari le-poratzen zaizkion ezaugarriak arrunt-keriak dirudite. Euskaldunen bitzta biolentzia eta pietatearen arteko ezinegonean burutzen zela dio idaz-leak. Biolentziarako joera honetan edozer sartzea baliagarria denez, hereseak, prostitutak, lapurrak eta maiorazgoen erruz manufakturara proletarizazioaren bidetik pasatzen diren "segundoiak", Euskal Herriko

8. Bazán Díaz, I.: *La cárcel de Vitoria en la Baja Edad Media. 1428-1530. Estudio etnográfico*, Gasteiz 1992.

9. Begiratu, bestela, César Manzanosen liburuan agertzen diren grafikoak. Manzanos, C.: *Cárcel y marginación social*, Bilbo 1990. Agian datu hauek ez dute oso zerikusi handirik Erdi Aroko gizartearekin baina guztiz beharrezkoa iruditzen zaigu konparazio batzuen atzetik dauden aurreiritziei erantzuteko.

geografiaren laguntzaz, elkartu egiten dira. Alderantziz, pietatearen ordezkaria den burgesiak ordena bilatzen du, hiritarren segurtasuna eta jainkoari gorde beharreko begirunea inposatuz. Berriro ere, botere-taldeek eta bidaiariak sortutako idazkiak erabiliz trantsizio-gizarte honen irudi deformatua eskaintzen zaigu. Ondorioen artean idazlearen aurreiritziak eta egitasmoak laburbiltzen zaizkigu hurrengo testu honetan:

Con todo, se puede indicar que para el siglo XVIII la sociedad vasca había culminado un proceso de *civilización y modernización*¹⁰ iniciado a finales de la Edad Media.

Ikerlanean zehar erabilitako estiloa bat dator plazaratzen diren ideiekin. Eruditoen joera nagusitzen da zenbait zatitan, eta testuan dokumentu luzeak agertzeak ez du izkututzen kasu batzuetan erreflexio eta analisi falta. Historialari baten lana, nire ustez, ez

da ikertzen duen gizartearen deskribapen zehatza ematea, nahiz eta dokumentu asko erabili duela probatu. Ikerlariak analisisira jauzia egiteko ausardi apur bat behar du, batzuetan Iñaki Bazáni falta zaiona. Horren adibidea aipuen erabilera dugu. Hauetan, gehienetan, beste historialari batzuek idatzitakoa ematen zaigu inongo erreflexio barik; horregatik sakondu gabeko gertaera eta egoera batzuk ez dira falta lan honetan.

Amaitzeko, ez dugu batere zuzentzat jotzen historialariak zenbait giza taldereko azaldutako jarrera. Homosexualen edo arloteen kasua aztertzen denean espresio batzuk baztertu beharrekoak dira; XV. mendeko Italiako homosexualitatearen proportzioa, adibidez, ezin da inola ere *kezkagarria* izan XX. mendeko historialari baten ustez.

Eugenio Riaño

10. Etzana geuk ezarria da.